

Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

2001eko martxoaren 24koa A eredia

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NA zenbakia:

Euskaltegia:

AZTERKETAKO ARIKETEN PUNTUAZIOA ETA DENBORA BANAKETA

Ahozkoaren *ulermena* ariketa burutu ondoren, **2 ordu eta 20 minutu** dituzu azterketa hau egiteko. Denbora nahi duzun moduan banatu eta azterketa nahi duzun ordenan egin dezakezu baina hona, ariketen puntuazioekin batera, aztertzailleek pentsatutako denbora banaketa:

Azpiatala	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	---	---	3 min.
1. IDAZLANA			
Idazlana	25	15	55 min.
Ortografia	5	1	
2. ESALDIAK BERRIDATZI	5	2,5	25 min.
3. SINONIMOAK EMAN	5	2,5	
4. IRAKURMENA	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	---	---	12 min.
Guztira	50	29	2 h 20.

Idatz ezazu **garbi eta tintaz**: aztertzailleek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Azterketa gainditzeko ariketa guztietan atera behar da gutxieneko puntuazioa.

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. *Zer dio Harkaitz Canok bere inguruan bizi zirenei buruz?*
 - a) Lan egiteari esker bizi ziren artistak edo artista izenekoak zirela.
 - b) Inolako lanik egiten ez zuten artistak zirela.
 - c) Langile arruntak besterik ez zirela.
 - d) Bizi ahal izateko lan kaskarrak egiten zituzten handiusteko sasiartistak zirela.

2. *Zer dio Truman Capote edo Raymon Carver bezalako idazleei buruz?*
 - a) Irudimen handikoak zirela.
 - b) Ongi idazten zutela eta irudimen izugarria zutela.
 - c) Irudimenari tokirik eman gabe, den bezalako gizartea islatu dutela.
 - d) Amerikar gizartea den bezalako irudimenari esker islatu dutela.

3. *Zer esaten du etxebizitzak alokatzeari dagokionez?*
 - a) Alokatu nahi duena ezin dela homosexual edo erretzaile izan.
 - b) Alokatu nahi duenak zehatz adierazi behar dituela bere ezaugarriak.
 - c) Alokatu nahi duenak poliziak duen galdeketa-orria bete behar duela.
 - d) Ilaran aurrena dagoenak duela alokatzeko aukerarik handiena.

4. *Zer da loft deritzona?*
 - a) Artistek lan egiteko fabrika bat.
 - b) Fabrika dotorea, ongi hornitua.
 - c) Andy Warhol-ek sortutako artisten fabrika.
 - d) Bizitzeko erabiltzen den fabrika.

5. *Zelakoa da loft batean bizitzea?*
 - a) Apartamentuan bizitzearen antzekoa da.
 - b) Nork bere lanarekin harreman zuzena izatea eskaintzen du.
 - c) Etengabe lanean aritzeko abantaila eskaintzen du.
 - d) Norberak nahi duen bizimodua egiteko aukera eskaintzen du.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *Zer dio Manhattani buruz?*
- Kanpoko jende aberatsaren bizilekua dela.
 - Bulegoz betetako toki garestia dela.
 - Alde egiteko moduko tokia dela.
 - Bulego eta etxebizitza garestiz jositako tokia dela.
7. *Zergatik ezin da egin New Yorki buruzko turismo-gida iraunkorrik?*
- Gune txiroak eta garestiak nahasian daudelako.
 - Toki bakoitzaren ezaugarriak jakitea zaila delako.
 - Jendeak gutxi irauten duelako toki bakoitzean.
 - Tokien ezaugarriak azkar aldatzen direlako.
8. *Zer dio Euskal Etxeari buruz?*
- Han denbora askoan bizi direnentzat sustraiekiko lokarria dela.
 - Benetako euskal sustrairik ez duen tokia dela.
 - Kuriositatez bisitatzen den toki bat besterik ez dela.
 - Ez zutela behar bezala ezagutzeko aukerarik izan.
9. *Zer dio Pasaia blues eleberrinari buruz?*
- Han asmatu zituela istorioa, elkarrizketak, etab.
 - Istoria izan ezik, gainontzeko zenbait elementu bertan sortu zituela.
 - Dezente kostatu zitzaiola hiri hartan Euskal Herriari buruz idaztea.
 - Istorioaren inguruko dokumentazioa bertan aurkitu zuela.
10. *Zer gertatu zitzaion itzultzerakoan, "oroimen selektiboa" aipatzen duenean?*
- Une txarrak eta gogorrak gogoan zituela.
 - Hiria neurritz kanpo idealizatu zuela.
 - Igarotako une onak baino ez zituela gogoratzen.
 - Negar egin zuela, tristuraz.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

6	7	8	9	10
---	---	---	---	----

1. IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) *hizkuntz aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik egin dezakezu.*


ZIRRIBORROETARAKO ORRIA

GAIA HAUR GUTXI JAIOTZEN DA

Euskal Herriak du Mendebaldeko herrietatik jaiotza tasarik txikiena: emakume bakoitzeko 0,92 ume.



ARGIA aldizkaritik




Iturria: I APEZTEGIA. EGUNKARIA 2000-IV-14

☐ Belaunaldien jarraipena ziurtatzeko emakume bakoitzak 2,2 ume izan beharko lituzke.

Suedian, Frantzian... hasi dira gauzak aldatzen: laguntzak, lan ordutegiak... haurrak izateko bultzada.

EAEko biztanleriaren proiektzioa

Biztanleriaren bilakaera



Iturria: EUSTAT. EGUNKARIA 2000-IV-14

Arazo sozialak sortuko omen dira: langile erretiratu gehiago, langileak falta...

Ume eskasiaren arrazoiak:
 - Arrazoi ekonomikoak
 - Emakumea lanean
 - Gizonaren inplikazio eskasa
 - Gizarte hedonista: ongi bizitzea




ZABAIK (Diario Vasco)

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Aiton-amonen belaunalditik honako aldaketa.
- Zergatik horren haur gutxi?
- Falta diren umeak nola ordezkatu: inmigrazioa, adopzioa...?
- Ondorioak.
- Irtenbideak.

GAIA DIZIPLINA ESKOLETAN



16 urte bete arte eskolan egotea lorpena.




Iturria: El SEMANAL.

Gurasoak ia beti ikaslearen alde. Ikustekoa da egiten duten presioa notak tartean daudenean.

"Gure klasean nahi dutena egiten dute ikasle batzuek; irakasle askok paso egiten dute, ez dute neurrik hartu nahi".
(Arantxa, DBHko irakaslea)

"Eskolako jantokian gertatzen dena are larriagoa da".



"Irakasle izatea baino lanbide neketsuagorik ez dago, gaur egun".
(Castilla del Pino, psikiatra)

Ezinegona, beldurra, eta presioa hedatzen ari dira irakasleen artean.

Iturria: El SEMANAL.

Lehen eskola autoritarioa omen zen. Orain autoritatea ikasleen eskuetan dago.



Haur eta gazteko askoren jarrera: tirania gurasoekin eta arauetara egokitu ezina eskolan. Familia bera ere hankaz gora jartzen dute.

Iturria: El SEMANAL.



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Hain larria ote da egoera?
- Gutxi batzuen jarrera ala orokorra?
- Diziplina beharrezkoa al da?
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.
- Irakasleen egitekoa eskolan. Eta gurasoena.
- Irtenbideak: diziplina-neurriak, balioen heziketa.

2. ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoan *etorri*takoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria.

1. Gure erantzunik jaso ez zutelako ez ziguten handik aurrera gehiago idatzi.

..... ..nez
..... utzi

2. Urte kaskar haren ondoren, ederki kostata atera genuen enpresa aurrera.

..... lanak

3. Goiz osoa darama horretan, baina tresna hori ezin du konpondu.

..... ezinik.

4. Hasieran errua berari egotzi nion eta honek lotsa eman zidan gero.

..... ..tzat
..... lotsatu

5. Gure izeba era horretan ondratuz gero, nolakoa den ikusita, zer opari eta mesede ez lizkiguke itzuliko!

..... ba...
..... zelako

6. Zuek ere zerbait gehiago egin zenezaketen eta ez ahoko zulora begira egon.

..... gabe.....

7. Gaztaroan ez dute asko gozatu bizitzaz; orain zahartzaroan, bai, ordea.

..... ez bezala

8. Hiletara sentikor hurbildu ziren batzuk; gehienak, ordea, ikusmiran etorri ziren.

 baino.
9. Bere gauzak kontatzeko ez zuen inor izaten alboan. Hori izan zen zahartzaroa goibeldu ziona.
 nori
 goibeldu zion..... .
10. Hegazkina hartu behar zuen une berean damutu zitzaion bertara igotzea. Hala diote.
 zorian
 omen

3. SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldietan markatuta dauden hitzen sinonimo egoki bana jarri behar duzu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Berehala ikusi zuen irakasleak **edozelan** egindako idazlan kaskarra zela.
2. Ez da komeni idazleari **traba** gehiegi jartzea, ez idazteko eran ezta idazgaietan ere.
3. Proiektu hark herriari lekarzkiokoen **onurak** begi-bistakoak dira batzuen ustez.
4. **Trabeska** baino ezin zen sartu piano erraldoia ate estu hartatik.
5. **Diosalik** ez egiterainoko gorrotoa eta ezineramana sortu zitzaien bi familietako kideei.
6. Poeta erromantiko asko **dohakabeak** izan zirela ikusten dugu biografietan.
7. Hamaikatxo **zeresan** eta nahaste sortu zuen bazterretan egunkarian azaldutako berri hark.
8. Azaro hotzaren erdian **berebiziko** eguraldia izan genuen lagun mendira egindako irtenaldi hartan.
9. Ezin ukatu **laket** zuela etxe hura bisitatzea alaba gaztea ezagutu zuenetik.
10. **Ohaidearekin** harrapatu zuenean, dibortzioa eskatu zuen.

4. IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

ADULTERIOA NOBELA ERREALISTAN

Adulterioaren gaia oso zaharra da literaturan eta, gainera, nobelaren garapenarekin lotura estua duena. Hor dauzkagu, Mme. La Fayette-en *Clevesko printzesa* XVII. mendean edo Wollstonecraft-ek XVIII. mendean idatzitako *Maria*. Alabaina, errealismoaren itzalean sortutako nobelak izan dira, dudarik gabe, adulterioaren gaia maisuki landu eta aztertu dutenak. Lehenago esan dugun moduan, Flauberten *Madame Bovary* (1857), Leon Tolstoi-ren *Anna Karenina* (1877), Clarinen *La Regenta* (1884) edo Eça de Queirozen *Basilio lehengusua* (1878) dira adulterioaren gaia maisuki erabili duten nobela errealista aipagarrienak.

Madame Bovary 1851-1856 bitartean argitaratu zen, epeka, *La revue de Paris* aldizkarian, eta urtebete geroago, liburu modura. Argitaratu eta egun gutxira, nobela amoralizat hartu zuten zentsoreek, eta adulterioaren goratzea egiten zuelako salaketapean, auziperatu egin zuten Flaubert bere egilea. Esan beharrik ez dago iskanbila honek sekulako entzutea eman ziola nobelari eta lehenengo argitalpena berehala agortu zen. Bere errugabetasuna frogatzeko, dudarik ez dago nobelan erabilitako kontamolde objektibo baliagarria izan zela egilearentzat.

Nobela bikaina da *Madame Bovary*, eta protagonista nagusia, Emma, irakurle askoren memorian geratu den emakumezko asegabea. Hauxe da bertan kontatzen den istorioa: Emma gaztea herrixka bateko mediku hits eta aspergarriarekin ezkondu da, Charles Bovaryekin. Berehala ohartu da ezkontza honekin ez duela bere gaztetako irakurketa erromantikoetan amestutako zoriona lortuko. Bere maitaleekin izango dituen harremanek ere ez dute asebeteko eta porrot egingo dute azkenean. Amaieran, beste irteerarik ez du ikusiko eta bere buruaz beste egingo du Emmak.

Hutsaltasunaren, hipokresiaren, alferrikako ametsen munduaz inguratuta bizi den emakume asegabe hau eta, irakurketa erromantikoek beragan egindako "kalteez" haratago, bere inkomunikazioa, frustrazioa, ezinegona... dira maisuki testuratzen zaizkigunak.

Ez da inondik ere harritzekoa XIX. mendearen bigarren erdialdean agertzea nobela horiek guztiak, garai horretan jartzen baitira zalantzan ordura artean tradizionalki onartu eta defenditutako jokabideak, bereziki ezkontzari dagozkionak. Orduantxe jarri zen modan "emakume asegabea" adierazpena, emakumezkoek jasaten zituzten bidegabekeriaren adierazle ere badena. Izan ere, XIX. mendean herrialdeetako legediak begiratzuz gero, berehala ohartzen gara emakumezkoek ez zutela ia inongo lege-eskubiderik. Hona zenbait adibide: 1814an, esate baterako, beren emazteak saldu dituzten senarrak ba omen dira Ingalaterran. Frantzia, berriz, 1816an senar-emazteen banaketa debekatu egingo da berriro ere eta Napoleonen Kode Zibilarri jarraituz, gizonetzko batek emaztea adulterioa egiten harrapatzen bazuen, berau hiltzeko eskubidea zuen. Senarraren menpe zegoen,

nabarmen, emakumezkoa Frantzian, eta 1881 arte ez zuen bere izenean kontu korronterik edukitzeko eskubiderik izan. Espainiari dagokionez, 1889ko Kode Zibilaren arabera, emazteak obedientzia osoa zor zion senarrari, eta senarraren esku geratzen zen haren ondasun guztien administrazioa. Infideltasun kasuetan, senarra izan bada beste emakume batekin harremanak izan dituenak, hori frogatu egin behar du emazteak. Alderantziz gertatzen zenean, emaztea adulteroa zela susmatzen edo zekien senarrak hil egin zezakeen hura, eta kasu horretan sei hilabeteko erbesteaz zigortuko zuten gizona.

Lege horiek ikusita, ez da inondik ere harritzekoa literaturan jardun nahi zuten emakumezkoek gizonezkoen ezizenak hartzea beren lanak kaleratzeko (Fernan Caballero, George Sand edo George Elliot-en kasuak aipa genitzake), garai haietan ez baitzegoen ongi ikusita emakumezko batek era horretako jarduerak izatea. Azken batean, tradizioz emakumezkoari egotzi zitzaizkion zereginak (emazte eta ama zintzoarenak) dira gizarteak ongi ikusten dituenak.

Goian aipatu ditugun lau eleberrietan protagonista adulteroa emakumezkoak dira. Bere arau moralak kinka larrian zeuzkan gizarte burgesak ezin zuen onartu horrelako jokabideak zabaltzea eta, betiko moduan, talderik ahulenarengan, emakumezkoengan jarri zuen bere ardura guztia. Horregatik amaitzen dira gaizki eleberri horiek guztiak, maila batean eredugarri ez ezik garaiko giroaren erakusgarri ere badirelako. Emmak bere buruaz beste egingo du, Anna Kareninak bezalaxe. Ana Ozores, *La Regenta*-ko protagonista, erabateko bakardadean geratuko da. Luisa, *Basilio lehengusua*-ko protagonista, gaixotasun larriaren ondorioz hilko da.

Esandakoaz gain, nobela horietako protagonisten izaera desberdinak aipatu beharko genituzke. Emma Bovary, maite ez duen senar eskasarekin ezkonduka dagoena, izaera ameslari eta ausartekoa da, ekimena duten horietakoa. Eça de Queirozen nobelako protagonistak, ordea, ez du nortasun tinkorik, ez ausardiarik, eta gertakariak eramango dute adulteriora. Horiekin alderatuta, Anna Karenina emakumezko ikasiagoa da eta bera baino askozaz zaharragoa den senarrarekin dago ezkondua. Emakume horiek guztiak daude nahiko ez luketen senarrarekin ezkonduka, guztiak dira dohakabeak beren ezkontzetan (aspergura dela eta, adin desberdintasuna dela eta).

Eta harrigarriagoa dena, beren jokabideak ohikotasunetik ateratzen den izaerari egozten zaizkio gehienetan: guztiak deskribatzen dira emakumezko urduri eta historiko moduan hainbat pasartetan.

Edozein alderditatik aztertzen ditugula ere, frustrazioz eta bakardadez betetako protagonista horien oinarrian, emakumezko dohakabe sinesgarriak irudikatzen asmatu zuten egile errealistek, beren garaiaren ondorio ere baziren emakumezko tragikoak.

«Adulterioa nobela errerealistan» (Moldatua)
Literatura Unibertsala
Iñaki Aldekoa eta Mari Jose Olaziregi
Eizie-Erein. Donostia, 2000.

Ondoko hamar galderetan, aukera ezazu bakoitzean erantzunik egokiena eta dagokion letra koadro honetan ipini.

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

1. *Adulterioaren gaia maisuki jorratzea...*
 - a) XVII. mendeko nobelei zor zaie, batez ere, *Clevesko Printzesa* eleberriari.
 - b) nobelaren sorrera bezain zaharra da.
 - c) *Madame Bovary* nobelak lortu zuen, batez ere.
 - d) XIX. mendeko eleberri errealistei zor zaie.

2. *Zer dio Madame Bovary nobela argitaratzeari buruz?*
 - a) Aldizkari mota batean argitaratu zelako amoraltzat jo zutela.
 - b) Idazleak asmatu eta idatzi ahala, epeka argitaratu zela aldizkari batean.
 - c) *La revue de Paris* aldizkarian argitaratutako kritikek amoraltzat jo zutela.
 - d) Liburu gisa azaldu baino lehenago aldika joan zela argitaratzen aldizkari batean.

3. *Zein ezaugarri ditu Emma eta Charlesen arteko ezkontzak?*
 - a) Emmak irakurritako liburu erromantikoetan jasotako idealak ez direla bere ezkontzan beteko.
 - b) Irakurketa erromantikoetan amestutako senarrekin alde handia duela Charlesekin.
 - c) Emmak etengabeko harremanak izango dituela hainbat maitalerekin.
 - d) Emma emakume asegabearentzat ezkontza bide okerra dela.

4. *Zer adierazten du "emakume asegabea" espresioak?*
 - a) Nobela errealistetan agertzen diren moralik gabeko emakumeak.
 - b) Zalantzan jartzen da zenbait emakumek ezkontzan duten jokabidea.
 - c) Zalantzan jartzen da emakume tradizionalaren egitekoa ezkontzan.
 - d) Zalantzan jartzen da emakumeek bidegabekeriak jasaten dituztela.

5. *Zer agertzen da 1889ko Espainiako Kode Zibilean adulterioari buruz?*
 - a) Gizonezkoa errudun den ala ez erabakitzeko frogak behar dituela emazteak; emakumezkoaren kasuan epaileek dutela azken hitza.
 - b) Gizonezkoa errudun denean sei hilabeteko erbestea duela zigortzat; emakumezkoak, berriz, heriotza.
 - c) Senarrak emaztea adulteroa dela susmatzen badu, frogatu egin behar duela.
 - d) Susmo hutsarengatik emaztea hil duen senarrari sei hilabeteko erbestera jarriko zaiola zigortzat.

6. *Zenbait emakume idazlek zergatik hartzen dituzte gizonezkoen izenak, hala nola Fernan Caballero, George Sand, George Elliot?*
- a) Emazte eta ama zintzoaren zereginak betetzen dituzten emakumezkoak ez direlako protagonistak euren nobeletan eta hori gaizki ikusita zegoen garai hartan.
 - b) Emakumezkoek idaztea gaizki ikusita zegoelako garai hartan.
 - c) Garai hartan gaizki ikusita zegoelako emakumeek zenbait gairi buruz idaztea.
 - d) Behin ezkonduz gero, senarraren abizenak hartu behar zituztelako nahitaez.
7. *Honako zein eleberrik dute amaiera tragikotzat protagonistaren heriotza?*
- a) *Basilio lehengusua, Madame Bovary, Anna Karenina.*
 - b) *Basilio lehengusua, La Regenta, Madame Bovary.*
 - c) *Madame Bovary, La Regenta, Anna Karenina.*
 - d) *Madame Bovary, Basilio lehengusua.*
8. *Zer dute elkarren antzeko lau nobela errealistetako ezkontzek?*
- a) Ideia erromantikoegiak dituzten emazteak.
 - b) Gogoko ez dituzten senarrekin ezkonduko emazteak.
 - c) Emazteez arduratzen ez diren senarrak.
 - d) Senar aspergarriak.
9. *Zer dago eleberri hauetako protagonisten baitan?*
- a) Garaian garaiko emakume eredu sinesgarriak direla.
 - b) Garaiaren ondorio diren emakumezko urduri eta histerikoak.
 - c) Moralik gabeko emakume tragikoak.
 - d) Garaian garaiko frustrazioz betetako ezkontzen adierazgarri direla.
10. *Zeri leporatzen zaio eleberri hauetan emakume horien jokabidea?*
- a) Ohikoa ez den izateko erari.
 - b) Ohikoa ez den izaera ausartari.
 - c) Izaera histerikoari.
 - d) Arau moralak ez errespetatzeari.

AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

			Erreferentzia	Azterketa honetan lorturikoa
AHOZKOAREN ULERMENA: guztira			5	<input type="text"/>
IDAZLANA BERA	Edukia *	0-7	25	<input type="text"/>
	Moldea *	0-8		
	Zuzentasuna *	0-10		
ORTOGRAFIA			5	<input type="text"/>
ESALDIAK BERRIDATZI			5	<input type="text"/>
SINONIMOAK			5	<input type="text"/>
IRAKURMENA			10	<input type="text"/>

* Adierazi gurutze edo zenbaki batez zein alderdi ez duen gainditu.

Kalifikatzeko irizpideak

Aztertzaileentzako jardunbidea liburuko azalpenen eta oharren sintesia.

IDAZLANA

EDUKIA (0-7) puntu. Honetan adierazia kalifikatuko da, hots, garatzeko eskainitako gaia zein neurritan osatu den:

- Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
- Argudio eta adibide asko / gutxi.
- Gutxieneko hitz kopurua.

MOLDEA (0-8) puntu. Adierazpena kalifikatuko da, hots, edukia azaltzeko moldearen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antolamendua.

ZUZENTASUNA (0-10) puntu. Hizkuntz akats nabarmenen araberako kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna:

- Deklinabidean: kasu atzizkiak zuzen / oker erabiltzea.
- Aditz mailakoa.
- Perpausen egituraketa.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmenki huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, ezingo da *Idazlana* gaindituzat eman.

ORTOGRAFIA

5	Oso zuzena
3-4	Akats ez oso larriak
1-2	Akats larri batzuk
0,1-1	Oinarrizkoak / Akats larri ugari

ESALDIAK BERRIDATZI

Berridatzi den esaldiak honako baldintzak bete behar ditu zuzentzat eman ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den "bidea"ri jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo erabili badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntua-zioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia zuzena izan behar du.

SINONIMOAK

Ontzat hartu ahal izateko:

- Testuingurua kontuan hartuta, egokia izatea.
- Bat baino gehiago jarritz gero, denek izan behar dute zuzenak.
- Atzizkiduna bada, atzizki eta guzti emana.

EGA

AZTERKETA IDATZIA

2001eko martxoaren 24koa

Eredua

A

ENTZUTEZKO ULERMENA - TESTUA
ARIKETEN GILTZAK

AHOZKOAREN ULERMENA I

Harkaitz Cano 1998ko urritik 1999ko udara arte, New York izan zuen bizileku. Orain, han izandako bizipenak eta fikziozko gertaerak Piano gainean gosaltzen kronika liburuan bildu ditu.

GALDERA. *Hemengo kontuak ahaztu nahi zenituelako joan al zinen?*

HARKAITZ CANO. Bai, ezinezkoa bada ere. Hemengo berri izaten nuen, astean bizpahiru gutun jasotzen baintuen. Egunkari zatiak bidaltzen zizkidaten, eta hasieran interes handiarekin irakurtzen nituen, baina denbora joan ahala ez hainbesterekin. Bitxia da, baina askotan egunkari zatietan interesgarriagoa da atzeko aldea, erabat irakurri ezin daitekeena. Eta hara joatea hutsetik hastea zen. Inork ez zuen ezer espero nigandik, eta hori zoragarria da. Kontua da ni oso egoera pribilegiatuan egon nintzela. Idazteko beka edo diru-laguntza nuen, astean behin *Egunkaria*-ko «*Barkatu, ama*» sailerako idatzi beharra... Goiz oso bat argazkiak ateratzen eman nezakeen. Eta nire ingurukoek ez. Gu bizi ginen auzoan denak ziren artistak, edo denek esaten zuten artista zirela; baina lan egin behar zuten egunero, etxeak garbitzen eta beste hainbat zereginetan.

GALDERA. *New Yorken irudi jakina ematen digute filmek, kantuek edo liburuek. Irudi hori baietzatu al zenuen han?*

HARKAITZ CANO. Bai. Konturatu nintzen bai zinemak, bai literatura amerikarrak gizarte hura erakusten dutela, eta oso ondo egiten dutela, gainera. Alde horretatik, nik pentsatzen nuen Truman Capotek edo Raymon Carverrek, oso ondo idazteaz gain, irudimen handia zutela. Eta han ikusi dut irudimen handirik ez dutela, baina idatzi oso ondo idazten dutela. Haien gizarte horrelakoxea da. Hanukkah-ko juduen Gabon ospakizunean izan nintzen, eta bazirudien Woody Allenen film batean nengoela.

GALDERA. *Liburuak argi erakusten du etxebizitzarena arazo larria dela New Yorken; ez dela batere erraza leku bat aurkitzea. Hori horrela al da?*

HARKAITZ CANO. Izugarria da arazoa; ezin da imajinatu ere egin. Inork ez dizu esaten bere etxera joateko gau batzuk pasatzera, gehienek eskarmentu txarren bat izan dutelako edo. Pisu bat alokatu nahi izanez gero itaunketa latza jasan behar da. Alokatzeko dagoen edozein etxetan izugarritzko ilara egoten da zain, eta etxearen jabeak banan-banan galdeketa egiten dio jende guztiari. Formulario antzekoa izaten du, eta galdera bakoitzari gurutze bat jartzen dio. Erretzailea zara? Zenbat irabazten duzu hilean? Zertan egiten duzu lan? Larunbat gauetan ateratzen zara? Homosexuala zara?...

GALDERA. *Zu zeu loft batean bizi izan zinen sei hilabetez. Zer da zehazki loft bat?*

HARKAITZ CANO. *Loft* fabrika bat da. Batzuk oso dotoreak dira, Sohon eta. Basquiat, Andy Warhol eta halako artistek erabiltzen zituzten bizitzeko eta lan egiteko, oso handiak direlako. Berez, *loft*-a espazio bakarra da, baina guk geneukana egurrezko hormez banatuta zegoen. Hala, bakoitzak bere espazioa zuen. Ez da apartamentu batean bizitzea bezain eroso, baina badu bere alde ona: norbere lanarekin etengabe harremanetan egotea. Pintorea bazara, eta margo bat egiten ari bazara, goizean jaikitzen zarenean, horixe da ikusten den lehenengo gauza. Gainera, *loft*-ean nahi duzuna egin dezakezu. Horman zuloak egin, mural bat margotu edo zorua aldatu. Fabrika bat da eta hurrengo datorrenak jakingo du zer egin.

AHOZKOAREN ULERMENA II

GALDERA. *Jende ezaguna ere bazenuen New Yorken. Horrek laguntza handia eman al dizu?*

HARKAITZ CANO. Bai. New Yorken bakardadean bizi da jendea, eta noiz edo noiz komunikatzeko aukera izatea oso garrantzitsua da. Gainera, ez da hain hiri handia. Metroak oso ondo komunikatzen du toki bat beste batekin eta, azken batean sei-zazpi toki jakinetan ibiltzen zara. Kanean ere ikusten duzu jende ezaguna, auzo bakoitza herri baten antzekoa delako. Egunkari saltzailea, pizzeriakoa... beste edozein herritan bezala, jendea ezagutzen duzu. Nahiko lasaia da dena, baita Manhattan ere. Nik uste nuen zurrumbilo handia izango zela, eta ordu jakin batzuetan halaxe da, baina ez da hainbesterako jendearen mugimendua. Gainera, Manhattan bulegoz josita dago, eta hara jendea lanera joaten da. Gero beste auzo batzuetara joaten da lotara. Bestalde, Manhattanetik alde egiten du jendeak, oso garestia delako; gune garesti hori gero eta gehiago ari da zabaltzen. Dena azkar baino azkarrago aldatzen da New Yorken eta, lehen txiroa edo alternatiboa zena orain luxuzkoa edo toki dotorea da. New Yorkeko turismo-gida iraunkor bat egitea ezinezkoa da.

GALDERA. *Euskal Herriko jendea ere bizi da New Yorken. Badago harremanik edo?*

HARKAITZ CANO. New Yorken bagenuen Euskal Etxe bat gure bizilekutik gertu, eta batzuetan kuriositatez joan ginen. Jendeak paso egiten du Euskal Etxera joateaz, baina han urteak daramatzaten euskaldunek sustraien falta nabaritzen dute eta beharrezkoa egiten zaie lotura hori. Beste kultura batean erabat murgiltzea eta han bizitzen geratzea oso zaila da. Nahiz eta bertako hizkuntza oso ondo ikasi, une batetik aurrera beste behar hori, sustraiena alegia, sentitzen duzu. Han sei edo zazpi urte daramatzan jendeak hanka bat hemen du eta bestea han. Hona etortzen direnean aspertu egiten dira, baina hara joan eta ez daude erabat eroso. New York jende gaztearentzako hiria da, erritmo bizia eraman ahal duen jendearentzako hiria.

GALDERA. *Pasaia blues eleberria idazten jardun zenuen New Yorken. Nola eragin zuen hiriak liburuan?*

HARKAITZ CANO. Istorioa pentsatua neukan hara joan baino lehen, eta gutxieneko dokumentazioa ere banuen. Alde horretatik ez zitzaidan askorik kostatu Euskal Herriari buruz idaztea New Yorken. Hori bai, Euskal Herrian idatzi izan banu, erabat ezberdina izango zatekeen. Istorioa errespetatu nuen, baina istorioaren hutsuneak, elkarrizketak eta abar, han sortu ziren.

GALDERA. *New Yorketik itzultzean, hiriaren zer irudi ekarri zenuen?*

HARKAITZ CANO. Etorrera oso tristea izan zen. Ez nintzen jabetu etorri behar nuela eta une arraroa izan zen. Handik ekarri nuen irudia nahiko idealizatua izan zen. Oroimen selektiboa izugarria da, eta gauza onak baino ez nituen gogoratzen. Ahaleginduta, gogoratzen dituzu une txarrak eta gogorrak, eta lekuz kanpo sentitzea zer den. Baina kontu horiek ahaztu egiten dira.

EGUNKARIA, 2000-12-28.
«Barkatu ama» (6-7 orr.)
(Moldatua)

AHOZKOAREN ULERMENA

A eredua	1 A	2 C	3 B	4 D	5 B
	6 B	7 D	8 A	9 B	10 C

ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzun-ereduak)

- Gure erantzunik jaso ez zutenez (gero) handik aurrera **utzi** egin zioten idazteari.
- Urte kaskar haren ondoren **lanak** izan genituen enpresa aurrera ateratzen / ateratzeko. (... lanak eman zizkigun enpresa aurrera ateratzeko).
- Goiz osoa darama tresna hori konpondu **ezinik**.
- Hasieran bera erruduntzat jo izanak **lotsatu** egin ninduen gero.
- Gure izeba era honetan ondratuko **bagenu**, nolakoa den ikusita, **zelako** opariak eta mesedeak itzuliko lizkigukeen!
- Ahoko zulora begira egon **gabe** zuek ere zerbait gehiago egin zenezaketen.
- Gaztaroan **ez bezala** gozatzen dute bizitzaz orain zahartzaroan.
- Hiletan gehiago ziren ikusmiran etorri zirenak sentikor hurbildu zirenak **baino**.
- Bere gauzak **nori** kontatu(rik) eduki ez izanak **goibeldu zion** zahartzaroa.
- Hegazkina hartzeko **zorian** zegoela / zegoenean damutu **omen** zitzaion bertara igotzea. (Oharra: *diotenez + omen, txarto*)

SINONIMOAK (Erantzun-ereduak)

Hemen ageri ez den sinonimoren bat ontzat emateko zalantza izanez gero, jarri ohar bat neurketa-fitxan.

- | | |
|--|--|
| 1. edozelan : nolana, edonola, edozertara... | 6. dohakabeak : zoritxarrekoak, zorigaitzokoak, malurusak... |
| 2. traba : oztopo, eragozpen... | 7. zeresan : kontu, esamesa, zurrumurru, esateko... |
| 3. onurak : mesedeak, abantailak... | 8. berebiziko : sekulako, egundoko, itzelezko, izugarrizko... |
| 4. Trabeska : alboz, zeharka, aldamenka, trabesetara, saiheska... | 9. laket : gustuko, gogoko, atsegin... |
| 5. Diosalik : agurrik, adiorik... | 10. Ohaidearekin : maitalearekin, amorantearekin, ohelagunarekin... |

IRAKURMENA

A eredua	1 D	2 D	3 A	4 C	5 D
	6 B	7 A	8 B	9 D	10 A